

**BILBOKO AUTOTAXI ZERBITZURAKO IBILGAILU BERRIAK EGOKITZEKO DIRU-
LAGUNTZETARAKO DEIALDIA -2017**

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioak esparruaren barruan, "Bilboko autotaxi zerbitzurako ibilgailu berriak egokitzea" diru-laguntza ildoari dagokion deialdia egin du.

Honakoa da deialdiaren xedea: ibilgailu berri bat, lehenengo matrikulazioa duena, egokitzeko inbertsioa diruz laguntzea, baldin eta inbertsio horren bitartez ibilgailu hori mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko gai bada eta Bilboko taxi zerbitzuan taxi egokitu gisa sartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen baditu.

2. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Honako lege eta arau hauen bitartez arautuko dira deialdian ateratako diru-laguntzak: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Legearen bitartez, hura garatzen duen Araudiaren bitartez –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua— eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko barneko organismoek eta erakundeek deitutako diru-laguntzak emateko Oinarri arautzailearen bitartez; azken horiek 2016ko ekainaren 30eko Udalbatzaren Akordioaren ondoriozko Ordenantza orokorretan onartu dira, eta 2016ko uztailaren 20ko 138. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Bilboko Udalaren autotaxi lizentzia baten jabe diren pertsona fisikoak, baldin eta:

- Zerbitzuari atxiki badiote lehen matrikulazioko ibilgailu egokitu bat 2016ko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra, eta udal-ikuskaritzak egiaztatu badu, ibilgailuaren aldaketaren aldeko aktaren bitartez.
- Taxiaren derrigorrezko udal-azterketak bete baditu.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako debekuren bat ez badu.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Diru-laguntzen onuradunek azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Bereziki egiaztatu beharko dute, onartzeko proposamena egin aurretik, egunean daudela zerga-betebeharrei dagokienez, bai eta Gizarte Segurantzari dagokienez ere.

Ez da diru-laguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta hura izapidetzeko datan ez badago egunean aipatutako betebehar horiei dagokienez.

Deialdi honetako onuradunek gutxienez 4 (lau) urtez eduki beharko dute ibilgailu egokitua Bilboko taxi zerbitzuen barruan, atxiki direnetik zenbatzen hasita. Gutxienerako epe hori amaitu aurretik kentzen bada ibilgailua zerbitzutik, Udalarik itzuli beharko dio aurreko paragrafoan zehaztutako gutxienerako epea bete bitarteko zati proportzionala, salbuetsita gelditzen delarik automobilaren transmisioa Bilboko beste

taxi baimen baten titular bati egiten bazaio eta automobilak zerbitzua ematen jarraituko badu gutxienerako epe hori bete bitartean. Edonola ere, gutxienerako epe hori betetzen ez bada, diru-laguntzaren onuradunaren erantzukizuna izango da alderdi proportzionala itzultzea.

5. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deialdiko diru-laguntzak Bilboko Udalak 2017ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren 61000 44110 78099, PEP 2017/00385 diru-sailaren kargura finantzatuko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa HOGEITA HAMAR MILAkoa (30.000) da.

3.- Esleipen hori amaitu ondoren, eten egingo da diru-laguntzak emateko prozesua, eta erabiltzeko dagoen aurrekontua agortu dela jakinaraziko da.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Laguntza honen zenbatekoa bost mila (5.000) eurokoa izango da eskaera bakoitzeko.

7. ARTIKULUA. BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

1.- Diru-laguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasuneko edo nazioartekoa.

2.- Edonola ere, ematen den diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo du izan, inondik ere, diru-laguntzaren xedearen kostua baino handiagoa, ez bakarka hartuta ez beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

3.- Onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi beharko diote beste Administrazio Publiko batzuek beste diru-laguntza batzuk eman dizkioten edo laguntza finantzarioak lortu dituzten proiektu bererako udal-ebazpenaren ondoren, hilabeteko epea igaro baino lehen, dagokion jakinarazpena lortzen denetik zenbatzen hasita.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da: udalaren webgunean (www.bilbao.eus); Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, San Agustin Eraikinean; Barrutiko Udal Bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian, eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean.

Diru-laguntzak jaso nahi dituzten pertsona fisikoek honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko dute beraien eskaera (I. eranskina):

- i) Eskatzailearen NANaren kopia.
- j) Ibilgailua egokitzeko gastuen faktura.
- k) Erantzukizunpeko aitortpena, zeinetan adieraziko duen ez duela diru-laguntzak jasotzea eragozten dion debekurik. Debeku horiek diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoak dira. (II. eranskina).

- l) Ibilgailua Bilboko taxi zerbitzuari gutxienez 4 (lau) urtez atxikiko zaiola adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena. (II. eranskina).
- m) Lehentasuna mugikortasun urria duten pertsoneri emango diela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena. (II. eranskina).
- n) Borondatezko baimena Udalaren alde, hark bildu ditzan Gizarte Segurantzari eta zergei dagozkien betebeharrei buruzko datuak. (II. eranskina).
- o) Zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak, hurrenez hurren, eskumena duen Zerga Administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak urte horretan eginak, baldin eta aurreko atalean aurreikusitako baimena aurkezten ez bada edo Udalak ezin baditu ziurtagiriak lortu.
- p) “Hartzekodunen fitxa”, behar bezala betea, eta bankuko kontuaren titulartasuna justifikatzeko agiriak. (III. eranskina).

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein erataria.

3.- Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da abian, eta 2017ko irailaren 1ean amaituko da edo aurrekontuen erabilgarritasuna agortzen denean. Informazioa udalaren webgunean egongo da eskuragarri: [www.bilbao.eus/ Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila](http://www.bilbao.eus/Mugikortasun_eta_Jasangarritasun_Saila)

9. ARTIKULUA. EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Diru-laguntzetarako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten pertsona fisikoei banatuko zaie, 7. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera, eta aukera hori zabalik egongo da aurrekontuaren zuzkidura agortu bitartean.

Diru-laguntzak emateko erabakian lehentasun ordenari begiratuko zaio, eta ordena hori, aldi berean, eskaera deialdian adierazitako dokumentu guztiekin aurkezten den dataren arabera izango da, edo, eskatutako agiriren bat faltatuz gero, hura aurkeztutako dataren arabera.

2.- Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraioen Zuzendariordezari lotutako langile teknikoek osatua izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen proposamena egingo du, ziurtatu ondoren:

- Garraio Zuzendariordezaren udal-ikuskaritzak txosten bat igorri duela, zeinetan adieraziko den diruz lagunduko den ibilgailuak ez duela eragozpenik taxi egokitu gisa Bilboko taxi zerbitzuaren barruan ibiltzeko.
- Onuradunak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela.
- Onuraduna egunean dagoela bere zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzaren alorrekoiei dagokienez, eta ez duela zerga-izaerako inolako zigorrak edo zorrik Udal honekin epe exekutiboan, salbu eta atzeratuta badago, zatikatuta badago edo betearazpena etenda badago.

3.- Prozeduraren betearazpena Gobernu Batzordeari dagokio, edo, bestela, hark eskuordetutakoari.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik edo eskatutako dokumentuak aurkezten direnetik zenbatzen hasita, deialdiaren laburpena argitaratu eta gero.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea igaro ondoren, eskaera gaitzetsi ahal izango da, administrazio isiltasuna dela-eta.

Eskatutako diru-laguntza ematea adosteko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da bide administratiboa.

Horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion administrazioarekiko auzi-epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

4.- Prozeduraren izapide eta ebazpen ekitaldien jakinarazpena jakinarazpen pertsonal bidez egingo da.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren Ordezkaritzak emango du onartutako diru-laguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan bere izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

11. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Ordainketa egin ahal izateko, Udalak ofizioz egiaztatuko du ibilgailua udal-ikuskaritzak taxi zerbitzuan sartzeko gaitzat hartu duela.

Diru-laguntzaren justifikazioa ordaindu aurretik aurkeztuko da, eta honako hau baliatuko da horretarako:

- Ibilgailua egokitu izanaren faktura; ordainketaren justifikazioa jaso beharko da bertan. Egokitzeko inbertsioa ibilgailuaren fakturan sartuta badago, bereizita egon beharko du egokitzearen kostua. Honakoak zehaztuko dira:
 - Matrikula edo bastidore zenbakia.
 - Ibilgailuaren marka.
 - Ibilgailuaren modeloa.
- IATari dagokion fitxa teknikoaren fotokopia, eta bertan idatzita agertu behar du ibilgailua gai dela mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko eta aulki gurpildunean dagoen pertsona garraiatzeko.
- Zirkulazio baimenaren fotokopia.

12. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua egokitzeko gastuak, BEZa salbu, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

13. ARTIKULUA. EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkututzen badira, diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, diru-laguntza jasotzen den unetik aurrera.

14. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako diru-laguntza guztiak eta diru-laguntza ukatuak argitaratuko dira udalaren webgunean.

Era berean, diru-laguntzen publizitatea egingo da Diru-laguntzan Datu-base Nazionalaren bitartez, Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2017ko ekainaren 28an
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila